


i  
ra  
ku  
rri  
matte

zumaiaiko literatur aldizkaria



# irakurri matte

zumaiaiko literatur aldizkaria

## AURKIBIDEA

aitzinsolasa	3
hala bazan...	4
<b>Galduta</b>	
irakurri nahi, matte?	8
<b>Suminaren estrategia</b>	
kontu-kontari	10
<b>Kilkerraren patua</b>	
literaturaz	12
<b>Euskarazko itzulpengintza dela eta</b>	
irakurketa-proposamena	14
<b>Bederatzi ateak</b>	
kantu-kantari	15
<b>Bertso berriak, krisiyak jarriyak</b>	

Argitaratzailea:



Laguntzailea:



**Zumaia Udalak**

Diseinua: Mari Bernal eta Roberto Gutierrez  
Maketazioa: Roberto Gutierrez  
Azaleko irudia: Iurre Eizagirre  
Lege-gordailua: SS-821-2008  
Inprimategia: Antza S.L.

Zure lanak bidali nahi badizkiguzu,  
hauxe duzu gure helbidea:  
**irakurri\_matte@euskalerrria.org**

# AITZINSOLASA

## Txinparta

Kaleko hotzak eta barruko beroak leihoak lurrundu dituzte. Euria mara-mara ari du kanpoan. Iluntasunak bere egin ditu kaleko txoko guztiak, eta zaila da, horrela, barrurako irrikari eustea. Izan ere, kaleko giroak etxezuloa bihurtzen du amets. Eta amets hori erdietsi ondoren, irudimenak sortutako munduetan murgiltzea izango du norbaitek amets. Amets baten osteko amets.

Aukera zabala du besteren batek irudimenari jarraikiz osatutako hariari tira egin nahi dionak. Denetarik topatuko du, kalean bezala. Batzuk gogoko izango ditu; ez hainbeste, ordea, beste batzuk. Hala ere, askatasun osoz aukeratu ahal izango duenez, ez dio inork zapuztuko ametsa, aukeraketak huts egiten ez badio, bederen.

Hamaika mundu, kolore, tonu, neurri, irudi. Hamaika amets. Irudimenak sor ditzakeen adina istorio eder, gozagarri, triste, luze, labur...

Amets egiten jarraitu nahi baduzu, hona gure proposamena: kalean euria mara-mara ari dueneko soinua leihoaren bestaldetik sartzen dela, piztu argiño bat, hartu estalkiak emandako goxotasuna lagun eta ireki gogoko duzun liburua, aldizkaria...; gozatu gogoko duzun norbaiten irudimenaren hariari tiraka.

## GALDUTA

Testua: Sinéad Bux


Irudiak: Migel Eizagirre ZHE LH5A

Begiak ireki nituen. Ez nuen ezagutzen leku hura. Irla bat zirudien, harkaitz asko zituen eta haien aurrean ikusten zen itsasoa, urdin-urdina. Eseri egin nintzen nire ingurura begiratzeko. Lehen udazkena zen, baina leku honetan uda zirudien, zerua lainotsua bazen ere. Nire atzean harresi moduko bat zegoen, harri grisez egina. Ni hondartzan nengoan, olatuak ailegatzen ziren, baina pixka bat urrutiago.

“Nola heldu naiz honaino?” galdetu nion neure buruari eta goizean gertatutakoa gogoratzen saiatu nintzen.

Arratsaldeko laurak aldera ziren eta paseora atera nintzen. Nora joan ez nekiela, hondartzarantz joan nintzen. Nahiko itsaso txarra zegoen eta jende gutxi. Banekien ez nuela egin behar, baina hondartzako harri gutxietan ibiltzen hasi nintzen, ailegatzen ez nintzenetara salto egiten edo eskalatzen. Baina orduan, gogoratzen nuenez, nigandik metro batera-edo zegoen batera salto egiten saiatu nintzen, eta hori, ez naizela oso saltari ona. Erdi bidean erori nintzen, uretara erori eta...





Horrekin galdera pila bat sartu zitzaizkidan burura: Konorterik gabe nengoela ekarri al nau itsasoak honaino? Ito egin ote naiz? Ekarri banau ere, noraino iritsi naiz? Zergatik ote da uda hemen? Beraz, galderen erantzunak aurkitu nahian, harresirantz abiatu nintzen.

Harresiaren barruan, herri txiki bat zegoen. Herria baino oraindik txikiagoak ziren etxeak zeuden elkarren ondoan pilatuta

aldeetan eta, erdian, gaztelu bat zirudien beste bat. Jendea zebilen gazteluaren inguruan. “Ezin al zioten herriari kolore pixka bat eman?” galdetu nion neure buruari harri grisei begira, gizon gizen bizar luzeko batengana hurbiltzen nintzen bitartean.

—Kaixo jauna, esango al zenidake...—hasi nintzen, baina berak moztu zidan.

—A! Zu berria zara, bai. Etorri, etorri. Erreginarekin hitz egin beharko duzu. Etorri, etorri.

Gaztelu barrura eramanez ninduen bitartean, “Etorri, etorri” esaten segi zuen, niri eskutik tiraka. Konturatu nintzen nik uste baino txikiagoa zela: gerriraino bakarrik iristen zitzaidan eta traje urdin bat zeraman jantzita.

Gaztelura iritsi nintzen eta ikusi nuen, kanpotik dena grisa bazen ere, barrutik oso ondo apainduta zegoela; sabaia zerua bezala margotuta zegoen, lainoak zeuden eta txori klase asko: usoak, arranoak, enarak, txantxangorriak... Paretak, berriz, krema kolore batez zeuden, eta haietatik zintzilik sekula ikusiak nituen lanpararik politenak. Urre koloreko burdin batzuekin hasten ziren, dena kiribilduta, suge batzuk ziruditela; goian, arrosa formako, koloreko (eta seguru usaineko ere) kriseilu batzuk.

Gelari begira nengoela, gizon beltzaran bat hurbildu zitzaidan.

—Mmm... Zu berria zara ezta? Lasaitu, berehala eramango zaitut berekin —esan zuen—. Eta gainera pozik nago etorri zarela, urte askoan bera izan da neska polit bakarra.

Azken hau esan zuenean gorritu egin nintzen. Jende askok dio polita naizela, baina ezin dut jasan. Gainera, nik gorroto ditut nire ile hori luzea, nire begi urdinak eta sudur luzea. Hala ere eramaten utzi nion.

Erregina ederra zela esatearekin, zuzen zegoen. Gauaren koloreko begiak zituen, sudur zuzena, eta sorbaldarainoko ile iluna.

—Kaixo —esan zidan— ea, zer egingo dut zurekin? Uste dut ondo egongo zinela...

Gizonak moztu zion eta eztabaidan hasi ziren. Nik segituan ulertu nuen eta badakit zer egin beharko zuten nirekin: etxera eramane. Beharbada ez dakit zergatik nagoen hemen, baina gauza bat badakit eta egia da.

Nahi duten guztia segi dezakete eztabaidan, baina ez naiz hemen geratuko. Etxera joan nahi dut eta nolana ere joango naiz. JOANGO NAIZ! Hau ez baita nire etxea, hau ez baita nire lekua. Ezin dut hemen geratu, esan dudane bezala, hau ez da nire lekua, ez nago etxean, galduta nago.

## SUMINAREN ESTRATEGIA

Iñigo Azkue



ARGITALETXEA: Elkar  
SAILA: Ateko bandan  
ARGITARATUTAKO URTEA: 2008  
EGILEA: Fernando Morillo  
ORRIALDE KOPURUA: 140

Aimar Goikoetxea antropologoa da, eta ipuin bat bidali du Zumaiako literatura-lehiaketara. Lehiaketako epaimahaikideetako batek, Florak, deitu dio, baina ez lehiaketa irabazi duela esateko; ongi ordaindutako lan bat eskaintzeko baizik. Zer lan da hori? Hauxe lortu behar du kosta ahala kosta: Floraren semea, Fede, amarengana itzultzea.

Horra, bada, intriga-istorio baten hasiera. Zergatik aldendu da Fede amarengandik? Zergatik aukeratu du Florak Aimar “lan” hori egiteko? Beteko al du Aimarrek eskatu zaion lana?

Egokia iruditu zait liburu hau gomendatzea, ez baitu zerikusirik aurrez gomendatu direnekin. Hizkuntza erraza darabilenez, azkar irakurtzen da, eta, gainera, istorioak harrapatu egiten zaitu hasiera-hasieratik. Gazteentzat idatzitako liburua dirudi, eta, bai, liburua freskoa eta bizia da, baina iruditzen zait helduek ere gozatu egingo dutela nobela irakurriz.

Estrategia eta sumina hitzak elkartzen ditu liburuaren izenburuak, eta biek nahiko ondo deskribatzen dute liburuaren muina, suminak bultzatzen baitu “ezkutuko” protagonistaren jokabidea.

Estrategiaren iruditzat, egileak “go” izeneko jokia aipatzen du atal bakoitzaren hasieran. Joko hori oso ezaguna da Asiako hego-ekialdean, eta 80 milioi inguru pertsonak jokatzen dute. Xakearen antzeko joko bat omen da, pieza beltzak eta zuriak darabiltzana, baina taula handiago batean jokatzen da, 361 laukikoan. Liburuan, oso bestelako piezak mugitzen ditu idazleak: joko psikologikoa, arriskua, manipulazioa... Maisuki mugitu ere.

Liburuak badu, nire ustez, beste ezaugarri deigarri bat. Amaiera borobila badu ere, irekita uzten dio atetxo bat irakurleari, istorioari jarraipena eman diezaion. Ez dakit zeuk ere, liburua irakurri ondoren, atetxo hori ikusiko duzun. Neuk, behintzat, ikusi dut, eta gogoko ditut horrelako liburuak, leku bat egiten diotelako irakurlearen irudimenari.

Duela gutxi, aldizkari batean, *thrillerrak* eta intrigazko nobelak udan irakurtzeko liburu aproposak direla irakurri dut, estresa arintzen dutelako. Neuk ez nuen liburua udan irakurri, baina gogoan dut oso gustura irakurri nuela, eta gomendatzeko moduko liburua iruditu zitzaidala. Horrenbestez, *Suminaren estrategia* duzu nire gomendia.

Liburuaren idazlea, Fernando Morillo, azpeitiarra dugu, eta, gaztea izan arren, ibilbide oparoa darama literatura-munduan. Liburu ugari eta askotarikoak idatzi ditu: gazte-literaturakoak, *Sexu egunsentiak*, *Izar-malkoak*, *Ortzadarra sutan*, *Eta ni zer?*; saiakerak, *Erraldoi herrena*; nobelak, *Gloria mundi*; itzulpenak, *Eragon*; biografiak, *Leonardo da Vinci*; eta beste hainbat.

Amaitzeko, esan nahi dizut egile honek berak, Fernando Morillok, hiru liburu berri aurkeztuko dituela, aurten, Durangoko azokan: *Egun beltzetan*, *jolas beltzak* Ereinek argitaratua; *Leonardoren hegoak*, Ibaizabalek argitaratua; eta *Zure arimaren truke*, Txalapartak argitaratua. Aukera paregabea izango duzu, beraz, *Suminaren estrategia* gustatu bazaizu, idazle beraren beste liburu batzuk irakurtzeko.

Bejondeiola, bada, Fernandori, bere idazlan ederrengatik, eta, bejondeizula zuri, irakurle, hartuko duzun gozatuagatik.

## KILKERRAREN PATUA

Testua: Asier Arakistain

Irudia: Iñigo Garcia

Nire bigarren laneguna zen sindikatuan. Bezperan ez bezala, bakar bakarrik nengoen. Ez nuen ez txostenik irakurtzeko ez eta propagandarik ere banatzeko. Aspermenaren aspermenaz, ordenagailuan hainbat egunkari irakurri ostean, egoitza goitik behera arakatuta, lurreko baldosak zenbatzeari ekin nion. 68.enean nindoala atea jo zuten.

Ez nuen asko usteko halako sindikatu iraultzaile batean halako afiliaturik egon zitekeenik. Metro erdi eskaseko soineko beltz bat jantzia, hankak gurutzatuta eta eskuin eskua atean pausatuz, irribarre lizun bat eskaintzen zidan, kalean urri eta aldizkarietan sarri ikus daitezkeen moduko emakume ilehori batek.

Emakume baten ordeztasun bat nuen begi aurrean. Hala iruditu zitzaidan niri behintzat. Niri eta nire kilkerrari.

Hitz totala zertan lagun niezaiokeen galdetu ondoren, bere lan kontratuaren inguruko kontsultatxo bat egitera zetorrela adierazi zidan, ezkerreko eskuaz bere izter biluzia laztantzen zuelarik. Berehala barrura sartzera gonbidatu genuen, nik eta nire kilkerrak.

Atetik mahaira nituen hamar pausoak nahikoa izan ziren lizunkeriazko lurrinetan igeri hasteko. Kilkerra kantuan hasteko.



Mahaian aurrez aurre eserita, bere zalantzaren berri eman bitartean, bere eskuak nireak ferekatzen hasi ziren, bere hankak nireak, eta bere begirada, ai bere begirada... Bere begirada ehizarako prest zegoen tigre emearena zen.

Ni prest nengoen bere ehizakia izateko, eta zer esanik ez nire kilkerra.

Ene amets hezeetako fantasia egi bihurtzeko tenorean zenean, kilkerra bere zulotik ateratzear zenean, hara!

Orain hemen gaude kilkerra eta biok, Arkauteko ziega honetan, eskuburdina haiek nondik atera zituen irudikatu ezinik.

## EUSKARAZKO ITZULPENGINTZA DELA ETA

Juan Luis Romatet

Lagunekin literaturaz edo liburuez hizketan (bai, harritzekoa bada ere, hortaz ere jarduten dugu) askotan gai berberaz hitz egiten amaitzen dugu: euskalduna munduan dagoen irakurle ikasiena dela. Ez naiz ari euskal idazleen liburuez, nahiz eta horretaz luze eztabaidatu daiteken; euskarara itzultzen diren liburuez baizik. Gogol, Pushkin, Henry James... Liburu-denda batetara joan eta euskarazko liburuen atalean begira jartzean zur eta lur geratzen naiz: Borges, Dostoievski, Tolstoi... Ostras! LITERATURA HANDIA irakurtzeko zaletuak gara euskaldunak! Bejondeigula! Nork irakurri nahi du John Grishamen azken best-sellerra euskaratutako errusiar klasiko bat edo Bostoneko aristokraziaren kronika bat irakur dezakeenean?

Txantxak alde batera utzita, klasikoen hutsune hori betetzeko ahaleginak txalogarriak badira ere, euskarazko itzulpengintzak aurrerapauso bat eman beharko lukeela iruditzen zait: irakurleen desioekin edo gogoekin bat egitea. Irakurleak Mankell edo Zafonen liburuak irakurri nahi baditu, zergatik ez horiek eskaini euskaraz? Eta irakurlea euskarazko literaturara hurreratu nahi bada, ez al da errazagoa hori lortzea une horretan puri-purian dauden idazleen lanak edo denbora-pasako nobelak euskarara eramanda? Zergatik ez euskaratu Stephen Kingen azken eleberria? Edo Noah Gordonena? Best-seller bat euskaraz irakurtzeak lotsa emango al liguke? Zergatik? Liburu erraz hauetako bat euskaraz irakurtzea gure hizkuntzan idatzitako LITERATURA SERIORA (hizki handitan) pasatzeko lehen pausoa izan liteke irakurle askorentzat; idazle serio edota kontsokratuen liburuak irakurtzeko alferkeria izan eta denbora-pasako eleberriak irakurtzeko ohitura dutenentzat, adibidez.

Eta agian ni naiz horren adibide garbia. Txikitatik maite izan dut irakurtzea. Jules Verne, Robert Louis Stevenson, Xabier Gereño eta Nikolas Txikiren liburuekin hazi eta hezia, oraindik gaztetxo nintzela LITERATURA HANDIAN murgildu nintzen, nahiz eta askotan lau hitzetik erdiak ere ulertzen ez nituen.

Urteak aurrera joan ahala, ordea, literatura errazagoa eskatzen dit buruak: nobela beltza, gehienetan. Noizean behin James Ellroy, Haruki Murakami edo Paul Theroux bezalako idazle “serioek” sinatutako liburuak ere irakurri ohi ditut eta benetan diot gozatu egiten dudala. Horrelakorik aurkitzen al dut euskarazko literaturan? Ez oso sarritan; oso gutxitan ez esateagatik. Ondorioz, euskaraz irakurtzeko ohitura ia galdu dut. Nire eskutatik pasako ziren euskarazko azken liburuak Roald Dahlen ipuin bat eta Patxi Gallegoren *Pololoak* (1 eta 2) izango dira. Kieto! Ez dut esaten euskal idazleak maila horretako liburuak idazteko gai ez direnik. Baina liburuaren kontrazala irakurri ondoren aurrez aipatutako alferkeriak bere besotan hartzen nau eta... Aiiii!

Baina ari dira gauzak aldatzen. Literatura “popular” batekin topo egiteko pausoak ari dira ematen. Harry Potterren sagako liburuak euskaratu dira. Paul Austerren azken bi liburuen euskarazko itzulpenak gaztelerakoarekin batera agertu ziren. Tolkienen *Eraztunen Jauna* monumentala ere euskaraz aurki daiteke dagoeneko. *Pijama marradunaz jantzitako mutikoa* liburuak sekulako arrakasta izan du. Bide horretatik jarraituta agian egunen batean Andrea Camilleri eta Henning Mankellen eleberri poliziakoak, Haruki Murakamiren *Tokyo Blues* txundigarria edo musikaz blaitutako Nick Hornbyren *High Fidelity* dibertigarria aurkituko ditugu Gogol, Pushkin edo Henry Jamesekin batera liburu-dendetako euskarazko ataleko baldetan. Irakurle batzuek eskertuko genuke.

## BEDERATZI ATEAK

Luis Unanue

Baleikeren bidez izan nuen Josu Waliñoren lanaren berri eta, irakurle amorratua ez naizen arren, interesgarria iruditu zitzaidan oso. Galiziako lagun batek kontatutako kondaira baten inguruan sortutako ipuin bilduma bati buruz ari ziren non, kondaira horren arabera, infernurako bederatzi ate omen daude, guztiak ere Galizian bertan. Bederatzi ate, bederatzi istorio. Fantasia eta beldurrezko gaiak gustukoak dituenarentzat primerako amua.

Amua jarri eta beitarik onena bilduma irekitzen duen ipuina da, Euskal Herriko Unibertsitatearen fantasiako literatur lehiaketan garaile geratu zena. Ba ote baso heze batean galdutako ermita ilun bat baino leku aproposagorik misteriozko istorio bat kokatzeko? Bertara eramango gaitu Josuk infernurako aurreneko atearen bila eta, lehen pertsonan kontatua dagoenez, egiatik zerbait ote duenaren zalantza sortuko digu. Ez du askorik behar irakurlearengan lehen hotzikara eragiteko.

Hemendik aurrera eta atez ate, hasieratik tentetu dizkigun bizarrak bere hartan gera daitezen saiatzen da idazlea, betiere liburuaren osotasuna errespetatuz, baina monotonian erortzea ekidin nahian. Horrela, kontu guztiek bilduma irekitzen duenaren maila dutela esatea gehiegizkoa den arren, ipuinez ipuin irakurlearen interesa bizirik mantentzeko gai da, bakoitza kontatzeko ikuspegi, elementu eta kokapen ezberdinak erabiltzen baititu. Gainera, baso, kanposantu edo sotoetarako bisiten artean ekartzen dizkigun istorioak ezagunak egingo zaizkigu denoi, hauek misterio eta beldurrezko kontu klasikoetan sustraitzen direlako eta Galizia kondaira lurraldea den bezala, gurean ere badugulako deabru, sorgin eta akelarreen berri.

Kontuan hartzekoa da, halaber, Josuk erabiltzen duen euskara ulerterrazak eta ipuin laburrak izateak lagundu egiten duela irakurketan, eta kontakizunetako batzuk bukatzeko era irekiarekin gure esku uzten du hauen amaiera. Irakurlea lotu eta bere imajinazioa pizteko era egokia.

Eta liburua bukatzeko hamargarren ipuin bat dugu opari, bilduma osoari eta beronen oinarri den aurreneko istorioari amaiera ematen diona. Azken finean gauzak ondo lotuta uzteko modurik egokiena hasierara itzultzea baita askotan, beldurrak hartara laguntzen ez duen arren.



## BERTSO BERRIYAK, KRISIYAK JARRIYAK

*Doinua: Haizea dator iparraldetik*

-1-

Duela asko sortu ninduten,  
daukat kontua galduta  
txanponak janez gizendu naute,  
dibisak nire zurruta,  
Ume garaian ez nintzen kexu  
pentsatuz “hau dek hau mauka”  
baina gerora, baldar nenbilen  
praketan ezin sartuta.  
Hala ta guztiz jarraitu dute  
hasia zuten burruka,  
orain lehertu egin naiz eta  
hara, dena kakaztuta.

-2-

Anaia bat dut bere garaian  
ez zena alperrik galdu,  
“etxebizitza” izena dauka  
ta zebilen horren malgu.  
Buruan amets bakarra zuen  
saldu, saldu eta saldu  
baina adinak ez du barkatzen,  
ezinbestean makaldu.  
Kontzientzia ez daukat lasai,  
zalantzak zaizkit ernaldu:  
gure artean jan genuena  
bazegoen non zabaldu.

-3-

Hau da kaosa, hau zoritxarra  
beltza dago panorama,  
Azken aldian jaitsi da eta  
era nabarian lana  
ta INEM-eko bulegoetan  
hori da jende andana.  
Hala ta guztiz, bada gauza bat  
ni harriturik naukana  
tren bat aurrera eramateko  
agintarien afana,  
nik zapaltzeko abiadura  
handiegian doana.

-4-

Laster Gabonak badatozkigu  
ta bertan jarritz arreta  
burutik kendu serpentina ta  
isildu bedi tronpeta.  
Egia esan arazo batek  
nauka zeharo erreta  
zuen umeen frustrazioa  
ez da gero berriketa!  
Amaitu zaie garai hauetan  
ohiko opari festa,  
Olentzero gizajoa ere  
parora bota dute ta.

